Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# FAMILIA MOTAK HAUR LITERATURAN

## GRADU AMAIERAKO LANA.

EGILEA: Tomé Culebras, Ana.
TUTOREA: Etxaniz Erle, Xabier.

**2020/2021 Ikasturtea.**

# AURKIBIDEA


1. LABURPENA…………………………………………………………………..2
2. SARRERA……………………………………………………………………...4
3. MARKO TEORIKOA…………………………………………………………..5
   - 3.1. Familia…………………………………………………………………..5
     - 3.1.1. Definizioa……………………………………………………….5
     - 3.1.2. Familia kontzeptuaren bilakaera…………………………………...6
     - 3.1.3. Familiaren sailkapena……………………………………………...7
     - 3.1.4. Familia motak……………………………………………………...8
   - 3.2. Haur literatura…………………………………………………………...9
     - 3.2.1. Familien aniztasuna Haur Literaturan……………………………..10
   - 3.3. Errealitatea Euskal Herrian……………………………………………...11
   - 3.4. Familia eta Haur Literaturari buruz dauden azterketak…………………....12
4. IKERKETA……………………………………………………………………...13
   - 4.1. Hipotesiak……………………………………………………………….13
   - 4.2. Metodologia……………………………………………………………..14
   - 4.3. Azterketa………………………………………………………………...14
   - 4.4. Emaitzak………………………………………………………………....34
5. ONDORIOAK…………………………………………………………………...36
   - 5.1. Hipotesien ondorioak…………………………………………………….36
   - 5.2. Beste lan batekin konparatuz…………………………………………….37
   - 5.3. Iritzi pertsonala…………………………………………………………..38
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK……………………………………..40
7. ERANSKINAK…………………………………………………………………..42

# 1. LABURPENA

Gradu amaierako lan hau, batez ere, azalduko den gaiari buruzko informazioa biltzean oinarritu da, hau da, familia-motak haur literaturan. Txostenean zehar, hainbat liburu mota aztertu dira, gai honek gizartean duen eragina aztertzen laguntzeko eta haur literaturaren bilakaerak gizartearen bilakaerarekin bat egiten duen egiaztatzeko. Era berean, garrantzitsua da pertsonak gurekin datorren gertaera berri horren inguruan kontzientziatzea. Horregatik, iritzi desberdinak ikuspegi subjektibo zein objektibotik jasotzea erabaki da. Irakurleek gai honi buruz dituzten pentsamoldeak aldatzea ere bada lan honen helburua. Izan ere, familia mota guztien onarpena ahalbidetu behar dela adierazi nahi izan da. Era berean, irakurleei egoera gatazkatsu horiei aurre egiteko kontuan hartu beharreko gakoak eman nahi izan zaizkie, etorkizunean diskriminaziorik gerta ez daitezen. Gai hau nahiko konplexua da, horrelako egoerei aurre egiten jakiteko ere aldaketa berriak eta tradizio berriak onartzen jakin behar da.

# RESUMEN

Este trabajo se ha basado principalmente en la recogida de información sobre el tema que se va a exponer, los tipos de familias en la literatura infantil. A lo largo del informe se analizan distintos tipos de libros que van a ayudar a ver el impacto que tiene este tema en la sociedad y a corroborar si la evolución de la literatura infantil va acompañada de la evolución de la sociedad. Es muy importante concienciar a las personas sobre este nuevo hecho que nos acompaña. Por ello, se ha decidido plasmar diferentes opiniones desde perspectiva tanto subjetivas como objetivas. Este trabajo tiene también como objetivo cambiar las mentalidades de los lectores respecto a este tema. Se ha querido expresar que todos los tipos de familias tienen que ser aceptadas. También se ha procurado aconsejar al lector sobre cómo hacer frente a situaciones conflictivas y evitar futuras discriminaciones por el hecho de que un niño/a no tenga una familia tradicional, la más común. Este tema es un tanto conflictivo, ya que para saber hacer frente a este tipo de situaciones también hay que saber aceptar los nuevos cambios y las nuevas tradiciones.

# ABSTRACT

This work has been mainly based mainly on the collection of information on the subject to be exposed, the types of families in children's literature. Throughout the report, different types of books are analyzed that will help to see the impact that this topic has on society and to corroborate whether the evolution of children's literature is accompanied by the evolution of society. It is very important to make people aware of this new fact that accompanies us. Therefore, it has been decided to express different opinions from both subjective and objective perspectives. This work also aims to change the mindsets of readers regarding this topic. The wish was expressed that all types of families must be accepted. Care has also been taken to advise the reader on how to deal with conflict situations and to avoid future discrimination due to the fact that a child does not have a traditional family, the most common. This issue is somewhat contentious, since to know how to deal with this type of situation you also have to know how to accept new changes and new traditions.

## 2. SARRERA

Gaur egun, berdinen arteko bereizkeria ahalbidetzen duen gaietako bat familia motak izan liteke, gizarteak familia kontzeptua definitzeko duen moduagatik. Alde horretatik, gizartean dauden familia guztiak barneratzeko eta etorkizunean gerta daitezkeen arazo edo bazterkeriak saihesteko haur literatura oso baliabide egokia izan daiteke. Horretaz gain, haurrei balioak, errutinak eta ideia positiboak transmititzen dizkie. Horregatik, ezinbestekoa da haur literaturan etorkizunean arazoak sor ditzaketen gaiak lantzea, arazo horiek konpontzeko gai izan daitezen. Haur liburu gehienetan, ohiko familia agertzen da, hau da, ama, aita eta seme-alabak. Halaber, familien aniztasunaren gabezia sumatzen da. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, gaur egungo familia-mota guztiak ulertzen laguntzen duten ipuinak sartzen ari dira.

Argi dago familia mota berriak onartzea nahiko ideia berria dela gizartean, eta oraindik ere badira familia mota desberdinak onartzearekin ados ez dauden gizabanakoak, hezkuntza tradizionalaren ondorioz. Horregatik, hezkuntzari dagokionez, nahitaezkoa da kontzeptu berritzaileak lantzea bizitzako lehen urteetatik, etorkizunean pertsonak diskriminaturik senti ez daitezen. Halaber, garrantzitsua da familia mota askotakoa izan daitekeela haurrei azaltzea. Azken finean, funtsezkoa da gizartean aurki daitezkeen familia motez jabetzea, etorkizuneko arazoak saihesteko edota aurre egiteko.

Gaur egun, familiaren kontzeptua aldatu egin da, familien aniztasuna duela zenbait urte baino zabalagoa delako. Hori dela eta, pixkanaka gizartea kontzientziatuz joan da, lehen “arrarotzat” jotzen ziren familia-motak onartzeko. Era berean, ezinbestekoa da pertsona eta gizarte gisa eboluzionatzea.

Gradu amaierako lan hau familia eta literaturan oinarrituko da. Halaber, lan honen helburu nagusia da irakurleak kontzientziatzea gaur egungo familia-aniztasunaz eta hori onartzeko beharraz. Hasteko, marko teorikoari dagokionez, bertan aurki daitezke familiaren definizioa, familia mota desberdinak, Euskal Herrian dagoen errealitatea eta gaur egun haur literatura eta familiei buruzko dauden azterketak. Ondoren, gai honen inguruko egindako ikerketa agertuko da. Bertan egongo da erabilitako metodologia, hipotesiak, hauek egiaztatzeko azterketak eta azterketen emaitzak. Horretaz gain, ondorio bezala egilearen

ikuspuntua adierazita egongo da, ikasitako guztia eta informazio guztiaren konparaketa. Amaitzeko, erreferentzia bibliografikoak eta lan honetako eranskinak aurki daitezke.

# 3. MARKO TEORIKOA

## 3.1 Familia

### 3.1.1. Definizioa

Konplexua da familiari buruzko definizio zehatz bat aurkitzea etengabe aldatzen ari den terminoa delako. Horretaz gain, gizaki guztiek ez dute familia kontzeptu bera elkarbanatzen, beraz, gai hau nahiko gatazkatsua da kasu batzuetan. Alabaina, webgune desberdinetatik aurkitutako definizioen ondorioz, argi geratzen da familia pertsona desberdinek sortzen duten talde bat dela. Hala ere, 'Geroa margozten' blogak bi definizio proposatzen ditu:

1) Familia ahaidetasun harreman estua eta lotura afektiboa duen pertsona multzoa da.
2) Familia erakunde unibertsal bat da, kultura guztietan dagoena. Oinarrizko talde honetan gure nortasun indibiduala eraikitzen dugu. Familia bateko kide izateak gizarte osoarekin lotzen gaitu, jaiotzen garen unetik bertatik.

Definizio honi dagokionez, familia mundu honetako pertsona guztien parte den kontzeptua dela egiazta daiteke. Hortaz, beti kontuan izan behar dira familia motak eta hauen sailkapena. Hala ere, 'Rae' hiztegiak beste era batean definitzen du familiaren kontzeptua:

1) Elkarrekin bizi diren ahaideen taldea.
2) Leinu baten aurreko, ondorengo, alboko eta antzeko ahaideen multzoa.
3) Adiskidetasunarekin edo tratuarekin zerikusia duten pertsonen taldea.

Azken definizio honetan, nabarmendu behar da norberak familiaren kontzeptua era batean edo bestean barneratzen edo hartzen duela. Hori dela eta, pertsonak, orokorrean, jabetzen dira familia, zentzu ofizialean, odol bera partekatzen duten pertsona-taldea dela. Hala ere, askotan, familia-egoera dela eta, odola partekatzen ez duten pertsonak familia gisa tratatzen dituzten pertsonak daude.

3.1.2. Familia kontzeptuaren bilakaera

Gaur egun, ezin da ukatu gizarteak familia terminoarekiko eboluzio positiboa lortu duela, onartzen diren familia motak aldatu egin direlako. Duela zenbait urte, familia tradizionala (ama, aita eta seme-alabak) bakarrik onartzen zen. Halaber, gizateria gizartearekin batera garatu da eta pertsonen pentsaerak bilakaera handia izan du. Nabarmendu beharra dago kultura eta erlijio batzuk besteak baino permisiboagoak direla. Hala ere, leku gehienetan familia mota anitzak ikus daitezke.

Esan bezala, familiaren terminoa elementu aktibo bat da, gizartearen eta kulturen bilakaeraren arabera aldatzen joaten delako. Bilakaera horretaz ohartzeko puntu garrantzitsuenetako bat familiaren antolaketa da. 'Knoow entziklopedia'-k horrela definitzen du termino hau: kide guztien arteko elkarreraginak eta formak dira, hala nola printzipioek, balioek, kulturak eta inguruneak. Hauek guztiak, eragina dute bakoitzaren garapenean, bai bakarka, bai taldean. Hori dela eta, 'Medisur' webguneak argitaratutako *La familia. Una mirada desde la psicología* liburuxkak baieztatzen du hainbat garai historikotan familiak antolatzeko modu desberdinak egon direla:

1) Familia odolkidea: Emakumeen eta gizonen arteko lehen elkartasuna izan zen. Ez zegoen bikoterik, ezta ezkontzarik ere. Harreman hau, sexu-beharrean oinarritzen zen.
2) Punalua familia: Basatasunaren aroan. Harremana pertsona-talde batek osatzen du. Kideek tribuko pertsonekin bakarrik izan ditzakete sexu-harremanak.
3) Familia sindiasmikoa: Bikote baten elkarbizitza da (gizona eta emakumea). Harreman honetan, beste emakume batzuekin harremanak izaten uzten zaio gizonari.
4) Familia monogamikoa: Zibilizazioaren aroan. Senar-emazte hauetan gizona da nagusi. Bere helburua seme-alabak izatea da, aitaren aberastasunaren oinordeko izateko.

Alde horretatik, familia-antolamenduak eta kideen eraketak izan dituzten aldaketak egiaztatzen dira. Horretaz gain, ikus daiteke familia kontzeptuaren bilakaera eta haren ezaugarrien aldaketa.

### 3.1.3 Familien sailkapena

Esan bezala, familiaren egiturak hainbat alderdi osatzen ditu; familia motak, bizi-zikloa, krisia, familiaren eginkizunak eta baldintza sozioekonomikoak. Hori dela eta, *La familia. Una mirada desde la Psicología* liburuxkak dio familiak sailkatzeko zenbait irizpide daudela:

a) Familiaren tamaina:
   - Familia handia: 6 kide edo gehiago ditu.
   - Familia ertaina: 4-6 kide.
   - Familia txikia: 1-3 kide.

b) Familiaren ontogenesia:
   - Familia nuklearra: bi belaunaldi arteko gurasoek eta seme-alabek osatzen dute. Senar-emazteek seme-alabak izan dezakete ala ez, eta anai-arrebak bakarrik egon daitezke.
   - Familia zabala: bi belaunaldi edo gehiago egon daitezke.
   - Familia mistoa edo handitua: Arestian aipatutakoak ez diren familia guztiak.

Familien antolaketa arestian aipatutako antolamenduan oinarritzen bada, nabarmendu behar da, kasu horretan, familiako kideren bat falta bada, familia osatugabea dela. Familia batek izaera osoa izan dezan, beharrezkoa da bi ezkontideak ezkontza sisteman irudikatuta egotea.

Bestalde, lehen aipatutako *La familia. Una mirada desde la psicologia* liburuxkak azpimarratzen du familia guztiek prozesu bat garatzen dutela, bizi-zikloa, eta prozesu horretan gertaera garrantzitsuenek markatutako familia-etapak nabarmentzen direla. Hauek izango litzateke etapa horiek:

- *Prestakuntza eta integrazioa:* bizitzako gertakariak ezkontza, haurdunaldia eta lehen semearen jaiotza dira.
- *Hedadura:* bizitzako gertaerak lehen semearen jaiotza eta bigarrenaren independizazioa dira.
- *Uzkurdura:* azken semea eta lehen ezkontidearen heriotza bereizi ditu.

- *Desegitea:* lehen ezkontidearen heriotza eta bigarren ezkontidearen heriotza dira haren gertakariak.

3.1.4 Familia motak

Familiek, bizitzan zehar, aldaketa ebolutibo anitzak izaten dituzte, eta horregatik etengabeko egokitzapenak egoten dira. Aldaketa horiek gertatzen dira bai kanpoan, gizartean gertatzen diren aldaketengatik, bai barnean, kideen eta egiturazko aldaketengatik. Hori dela eta, *La familia. Una mirada desde la Psicología* liburuxkak azaltzen duen bezala, familia bat funtzionalagoa izan daiteke, bere funtzioak betetzeko oreka dagoenean, eta, era berean, aldaketei aurre egiteko egokitze-baliabideak dituenean.

Lehen esan bezala, gizarteak bilakaera positiboa izan du. Hori dela eta, gaur egun, gizartean familia mota anitzak aurkitu daitezke. 'Lifeder' webgunean Alberto Leonek 14 familia mota bereizten ditu, gaur egungo gizartea osatzen dutenak:

- Familia nuklearra: Familia tradizionala. Gurasoek eta seme-alabek osatzen dute.
- Familia homoparentala: Sexu bereko gurasoek osatzen dute (Aita-Aita edo Ama-Ama).
- Guraso bakarreko familia: Guraso bakarra (Ama edo Aita).
- Familia berritua: Familia mota hau bi familiak osatzen dute, hau da, ezkontidea dibortziatu edo hil ondoren, guraso bat beste guraso batekin elkartu eta bi familiak etxe berean bizi dira.
- Hiru belaunaldiko familia: Hainbat belaunaldiren familiako kideak elkarrekin bizi direnean.
- Familia adoptiboa: Familia batek ume bat edo gehiago adoptatzen duenean gertatzen da. Orokorrean gertatzen da gurasoek ezin dutelako seme-alabarik izan edo nahi dutelako.
- Harrera familia: Bikote batek edo pertsona batek erabakitzen duenean haur bat hartzea familia bat aurkitu arte.
- Seme-alabarik gabeko familia: Bi helduk osatzen dute, heterosexualak edo homosexualak izan daitezke. Arrazoiak dira ezin izan dutela seme-alabarik izan, edo ez dutela nahi izan.

- Aitona-amonen familia: Aitona-amonek bilobak zaintzen dituztenean gertatzen da, gurasoak hil direlako, haurrak abandonatu dituztelako edota seme-alabak zaintzeko gai ez direlako.
- Gurasoak bananduta dituen familia: Gurasoak dibortziatzen direnean.
- Familia matrifokala: Familia mota hau ohikoagoa da Jamaikan, Dominikan, Frantzian edo EEBBetan, gertatzen da amak eta amaren familiak pisu handiagoa duenean.
- Familia komunala: Normalean, bikote monogamoek eta seme-alabek osatzen dute familia komunean bizitzea eta guztien artean eskubideak eta betebeharrak partekatzea, haurren hazkuntza barne.
- Pertsona bakarreko familia: Mota honetan, pertsona heldu bat bakarrik bizi da, baina, harreman ez formalak izan ditzake.
- Maskotak dituen familia: Bikote bat, seme-alabarik gabe, baina, maskota bat edo gehiago zaintzen ditu.

Ikus daitekeenez, gaur egungo gizarteak pentsaera irekiagoa du eta aurreko garaietan baino askoz ideia eta kontzeptu integratzaile gehiago onartzen ditu. Gainera, seguruenik, aipatutakoak baino familia mota gehiago egongo dira. Hala ere, familia mota horiek guztiak aztertu ondoren, familia mota batzuen gabezia sumatu dut, hala nola guraso transexualak dituzten familiak, besteak beste. Baliteke gizarteak familia mota hori oraindik onartu ez izana, baina argi dago gizarteak pixkanaka onartuko dituela gaur egun 'arrarotzat' jotzen diren familiak. Argi izan behar da gizartea modu positiboan ari dela garatzen, eta itxaron besterik ez da egin behar, gai horren inguruko diskriminazio guztiak desagertzeko.

## 3.2. Haur Literatura

Ikerketa askoren ondorioz, nabarmendu behar da Haur Literatura ez dela betidanik egon den termino edo baliabide bat, urteen poderioz garatu den zerbait baizik. Hala ere, argi dago oraindik garatzen doan terminoa dela. Gainera, idazle eta autore askok hainbat eratan definitu dute Haur Literatura.

Adibidez, Juan Cerveraren (1984) arabera, termino hau honela defini daiteke: Hitza helburu artistiko edo sortzailerako duten eta haurra hartzaile duten ekoizpen eta jardueren multzoa. Gainera, autore honek Haur Literatura bi alderditan sailkatzen ditu: alde batetik, *irabazitako literatura*, hasieratik haurrei zuzenduta ez zeuden literaturak izango litzateke,

baina, azkenean haiei zuzenduak daudenak. Bestalde, *haurrentzat sortutako literatura*, kasu honetan, hasieratik haurrei zuzendutako literatura.

Aldiz, Pedro Cerrillok eta Santiago Yuberok idatzitako *'La formación de mediadores para la promoción de la lectura'* (2003) liburuan diotenez: Haur Literatura, literatura da, eta, beraz, literatura hori balioetsi, aztertu eta auzipetu egin behar dugu. Literatura horrek kontuan hartzen du adierazteko modua, aldez aurretik idazten denean, irakurleak hizkuntza 'berezi' bat partekatzeko duen gaitasuna. Era berean, prozedura estilistiko gisa ulertuta, idazleari hitzak izendaturiko errealitatea ordezten duten esanahiaz haratago erabiltzeko aukera ematen diona.

3.2.1. Familien aniztasuna Haur Literaturan

Egia esan, gaur arte argitaratutako haur-literatura guztia aztertzen bada, balantze bat eginez, familia tradizionalak jarraitzen du nagusitzen. Lehen esan bezala, familia-mota arruntena tradizionala da, baina ez bakarra. Adibide giza izan daitezke, Errauskine, Peter Pan edota La Sirenita. Hala ere, gehien lantzen den familia mota izan arren, gaur egun ipuin berriak argitaratzen ari dira, familia mota berrien presentzia eta gai honekiko aniztasuna haurrekin lantzeko.

Webgune desberdinak aztertu ondoren, 'Oveja Rosa' webgunean, hainbat ipuin desberdin aurkitu daitezke gai berriak azaltzen dutenak, adibidez, Juan Rodriguez Matus 2008. urtean idatzitako *Las tres Sofias* liburua. Liburu honetan, familia tradizional baten istorioa azaltzen da. Aita hil ondoren, amak bizitza berregiten du beste emakume batekin. Beste adibide eraginkor bat izango litzateke Carmen Martinez Jover 2011. urtean argitaratutako *En busca del atesorado bebé canguro*. Haur literatura honek era erraz batean haurdunaldi subrogatua azaltzen du. Edota, *El día de la rana roja*, ipuin hau Esther Elexgaray Cruzek idatzi zuen 2005. urtean. Haur literatura honek tradiziozko ipuinekin lotutako estereotipo guztiak hausten ditu. Printze batek igel bati musukatzen dio. Honen ondorioz, igela gizon bihurtzen da eta maitemindu egiten dira.

Beste aldetik, euskarazko haur-literaturei dagokienez, adibide asko daude, hala nola *Familia giroan*, Béatrice Boutignonek 2014. urtean idatzia. Literatura honek familia mota desberdinei buruz hitz egiten du, eta irakurleak gizartean dauden desberdintasunetatik ikastea

du helburu nagusi. *Ametsek bi ama ditu* albuma ere nabarmendu daiteke. Ophélie Texierrek sortu eta Antxiñe Mendizabal Aranburuk 2011n itzuli zuten ipuin honek gizartean dauden familia-motak ere lantzen ditu, istorio argi eta ulerterrazen bidez. Baita, *Mila bi etxetan bizi da* haur literaturak guraso dibortziatuak dituen familia bati buruzkoa da. Ipuin honek bi etxetan bizi behar duen neskato bati buruz hitz egiten du: amarena eta aitarena. Ipuina Judith Koppens eta Anouk Nijs-ek idatzi zuten 2017. urtean.

## 3.3. Errealitatea Euskal Herrian

Gaur egungo Euskal Autonomi Erkidegoko familia-motei buruzko errealitatea erakusteko, 'Eustat' webgunean ateratako informazioa praktikoa izan da. Gainera, gai horren inguruan gizarteak izan dituen aldaketa ebolutiboak kontrastatzeko, 2001. eta 2016. urteetan familia mota bakoitzak izan duen presentzia aztertuko da. Horretaz gain, aurkitutako informazioa baliagarria izan da lehen aipatutako informazio guztia baieztatzeko. Bertan, Eustat webgunean, agertzen diren taula estadistikoetan, ikus daiteke familia mota desberdinen presentzia EAEn.




Lehenengo grafiko honetan ikusten den bezala, 2001. urtean familia tradizionala zen ohikoena. Azken finean, bai hezkuntza formalean bai ez-formalean, arruntena dela erakusten digute, hau da, jarraitu beharreko araua. Atzeraka begiratu besterik ez dago, eta txikitan ikusten genituen filmak aztertu, hala nola La Cenicienta, Peter Pan edota La bella durmiente. Filma horietan, eguneratu gabeko balioak irakasten dira, bikote ideala gizon batek eta

emakume batek osatzen dutela sinestarazten saiatzen direlako. Hortaz, nola aldatuko ditugu gizartearen pentsamoldeak txikitatik gizarteak ezarritako normaltasunari jarraitzea egozten badigute?




Bigarren grafiko honetan ikus daiteke familia tradizionala dela nagusi gaur egun. Hala ere, lehenengo grafikoarekin kontrastea sumatzen da eta gizartean beste familia mota batzuen presentzia areagotu egin dela berresten da. Lehen esan bezala, euskal gizarteak orain dela urte batzuk baino familia-mota gehiago onartzen ditu. Horrek esan nahi du gizarteak familia gehienen inklusioaren balioa garatu duela, gizarte justua eta inklusiboan bizi ahal izateko. Hortaz, oraindik asko dago aldatzeko eta onartzeko. Hala ere, harro egon gaitezke gure gizartean nabari diren aldaketez, nahiz eta oraindik ideia asko aldatu behar izana.

## 3.4. Familia eta Haur Literaturari buruz dauden azterketak

Ikerketa asko egin dira haur literaturako familia motei buruz. Arestian aipatu bezala, gai hau nahiko berria da, eta zalaparta eragin du. Gai honi garrantzirik ez ematearen, bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo, eta haur bakoitzak etxean dituen egoerak ez normalizatzearen ondorioz, haur asko arraro edo baztertuta sentitu dira, gizartean "normaltzat" jotzen den familia ez dutelako (Ama, Aita eta seme-alabak). Hala ere, ikerketa eta azterketa guztiei esker familia motak gizartean eboluzio handia izan ohi dute.

Era berean, nahiz eta ikerketa anitzak egon eraginkorra da nabarmentzea haur literaturako familia tipologiari buruzko ikerketa deigarrienetako eta hobekien landutakoetako bat. Kasu honetan, Nieves Gallego Acostak 2015ean Sevillako Unibertsitatean egindako gradu-amaierako lana da. Bertan, ikus daiteke haur literaturak izan duen bilakaera eta arrakasta gai honekiko. Esate baterako, Nieves Gallegok hasieratik gaur egun arte dauden haur-literaturak aztertzen ditu. Ikerketa honen idazleak erabiltzen den metodologia, lortu nahi diren helburuak, gaiaren garapena, familia-egituraren bilakaera, familia-tipologiak, familia ereduak eta tipologiak haur-literaturan, literatura eta familian, Lehen Hezkuntzan oinarritutako esku-hartzeak eta abar aipatzen ditu bere lanean.

Bestalde, ezin da atzean geratu Ainara Perez de Obanosek 2020an egindako ikerketa. Gradu amaierako lan hau Euskal Herriko Hezkuntza eta Kirol Unibertsitatean sortu zen. Ikerketa horretan, Ainara Perez de Obanosek Espainian zein Euskal Herrian gaur egun onartzen diren familien aniztasuna azaltzen du. Idazleak sortutako hipotesi batzuetan oinarritutako haur literaturak ere aztertzen dira, ondoren, hipotesien eta errealitatearen arteko balantzea egin ahal izateko.

# 4. IKERKETA

## 4.1. Hipotesiak

Ikerketa honetan familiaren isla aztertuko dugu gaur egungo haur literaturan. Alde horretatik guk uste dugu haur literaturak egungo errealitatea islatzen duela baina, baita ere, oraindik ere jarraitzen duela lehengo estereotipoak edo duela hamarkada batzuetako familien egoera islatzen. Beraz, honako hauek lirateke guk ikerketa honetan betetzea espero ditugun hipotesiak:

Gaur egungo haur literaturan…

- Familia tradizionala da ohikoena.
- Gaur egungo familia mota desberdinak ez dira lantzen.
- Amak etxean lan egiten du, haurrak zaintzeaz eta etxeko lanak egiteaz arduratzen da.
- Aita ez da agertzen.
- Ez dira lantzen familia mota anitzak.

- Pertsona gaiztoak maskulinoak/arrak dira (otsoa adibidez).
- Tradizionala ez den familia mota bat agertuz gero hori izango da liburuaren gaia.

Hipotesi hauek balioko dute aurrerago honen inguruan ondorioak ateratzeko, atera diren emaitzak hausnartzeko eta dagoen gai honi buruzko errealitatea bermatzeko. Horretaz gain, hipotesiak eraginkorrak eta baliagarriak izango dira egingo diren azterketen emaitzak ahalik eta zehatzenak izaten lortzeko.

## 4.2. Metodologia

Ikerketa kuantitatiboa erabili da lan hau aurrera eramateko. Hori dela eta, hipotesietatik abiatuta, haur literatura liburu desberdinak aztertu dira. Hortaz, komenigarria ikusi da hurbileneko liburutegietara hurbiltzea eta haurrentzako liburuak hartzea. Kasu honetan, liburuen aukeraketa egiteko Gasteizko bi liburutegitan eskatu da laguntza; Judimendiko liburutegi familiarrean eta Salburuako liburutegi familiarrean. Liburuak bi irizpideren arabera aukeratu dira, bi corpus desberdin osatuz; alde batetik, haurrek liburutegian gehien eskatzen dituzten liburuak aukeratu dira, hau da, gehien irakurtzen dituztenak (30 liburu). Bestalde, familia tipologietan oinarritutako liburuak hartu dira, haurrak gaur egungo familia-aniztasunaz kontzientziatzea helburu nagusi gisa dituztenak (15 liburu). Hala ere, nabarmentzekoa da ezin izan dela planteatutako metodologia espero zen bezala aurrera eraman. Hortaz, COVID-19 dela eta, zaila izan da liburu guztiak liburutegietatik hartzea. Izan ere, hautatutako liburu ugari berrogeialdian, maileguan edota beste liburutegi batzuetan zeuden. Horregatik, corpus horretako hainbat liburu online kontsultatu behar izan dira.

## 4.3. Azterketak

Liburuen analisia aurrera eramateko, 45 haur literatura aztertuko dira, horretarako, bi fitxa/taula mota (Eranskina 1 eta 2) burutu dira analisiaren emaitzak zehatzagoak izateko. Era berean, lehenengo corpusean 30 liburu aztertuko dira. Bertan, taula batean adieraziko da zein den liburu bakoitzean agertzen den familia mota: nuklearra, homoparentala, guraso bakarra, familia berritua, familia adoptiboa, seme-alabik gabeko familia, aiton-amonen familia, guraso bananduak, familia komunala edota beste. ‘Beste’ izeneko zutabean, lehen aipatutako familia mota ez diren guztiak adieraziko dira, adibidez, familiarik agertzen ez denean, familia mota

zehaztugabea denean edota soilik animaliak agertzen direnean. Edonola, taulan 'X' batekin markatuko da liburuan agertzen den familia mota. Horretaz gain, behar izanez gero, azalpen txiki bat adieraziko da, taula hobeto ulertu ahal izateko.

Beste aldetik, bigarren corpusean 15 liburu aztertuko dira familia mota desberdinetan oinarritzen direnak. Lehenik eta behin, lehenengo corpusean erabilitako taula mota erabiliko da, haur literatura bakoitzean agertzen den familia mota sailkatzeko. Ondoren, taula indibidualak agertuko dira. Bertan, lehenago burututako 9 hipotesi aztertuko dira. Hori dela eta, corpus honetan aztertuko dena da etxeko lanen banaketa, haurren zaintzan parte hartzen dutenak, etxetik kanpo lan egiten duena eta abar.

**A Corpusa:** Haurrak liburutegitik gehien eramaten dituzten liburuak (30 liburu).
**B Corpusa:** Familia motak lantzen dituzten liburuak (15 liburu).

**A Corpusa:**

| FAMILIA MOTAK / Liburuak | Nuklearra | Homo parentala | Guraso bakarra | Familia berritua | Familia adoptiboa | Seme-alabik gabekoa | Aiton-amonak | Guraso bananduak | Familia komunala | Beste |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Musuen etxea | X Aita, Ama eta Seme/alabak | | | | | | | | | |
| 2. Munstro arrosa | | | | | | | | | | X Neba-arrebak agertzen dira soilik. |
| 3. Txomin eta urtaroen liburu handia. | X Ama, aita, Txomin eta Katalin | | | | | | | | | |
| 4. Egun bat Pepe eta Milarekin. | | | | | | | | | | X Ez dakigu, lagunak, bikotea ala neba/arrebak izan |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | daitezke |
| 5. Munduko oparirik ederrena. | | | X<br>Aita eta seme/ala bak | | | | | | | |
| 6. Begiratu dezaket zure pixohialean? | | | | | | | | | | X<br>Ez da familiarik agertzen. |
| 7. ¡Como mola tu escoba! | | | | | | | | | | X<br>Ez da familiarik agertzen. |
| 8. No me da miedo la oscuridad. | X | | | | | | | | | |
| 9. Cosas que me gustan de mis abuelos. | X | | | | | | | | | |
| 10. Las princesas también se tiran pedos. | | | X<br>Aita eta Laura | | | | | | | |
| 11. Lo ala esna oihanean. | | | | | | | | | | X<br>Ez da familiarik agertzen. |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 12. Koloreetako munstroa. | | | | | | | | | | X Ez da familiarik agertzen. |
| 13. Txori horia. | | | | | | | | | | X Ez dakigu |
| 14. Norena da? | | | | | | | | | | X Ez da familiarik agertzen. |
| 15. Max eta Mia eta piratak. | X Ama, Aita eta seme alabak | | | | | | | | | |
| 16. Grufaloa | | | | | | | | | | X Ez da familiarik agertzen. |
| 17. Non dago elefante ama? | | | X Soilik ama agertzen da, ez dakigu familiako beste | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | kiderik dagoen. | | | | | | | |
| 18. El monstruo de colores va al cole. | | | | | | | | | | X Ez da inolako familiarik agertzen. |
| 19. ¿Qué son las estrellas? | | | | | | | | | | X Ez dakigu, ez da zehazten. Ilustrazioetan behin agertzen da aita eta semea eta beste batean ama eta alaba |
| 20. Jolastuko al gara? | | | | | | | | | | X Ez da inolako familiarik agertzen |
| 21. Amatxo eta ni. | | | X | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 22. Maite zaitut (ia beti) | | | | | | X | | | | |
| 23. La vaca que puso un huevo. | | | | | | X Baserriko animaliak dituen senarra eta emaztea | | | | |
| 24. ¿De qué color es un beso? | | | X Ama soilik agertzen da, ez dakigu familiako beste kiderik dagoen. | | | | | | | |
| 25. La mejor sopa del mundo. | | | | | | | | | | X Ez da inolako familiarik agertzen. |
| 26. A dormir monstruos. | | | | | | | | | | X Ez dakigu |
| 27. Non zaude, Ilargi? | | | | | | | | | | X |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 28. La vaca que subió a un árbol. | | | | | | | | | | X<br>Ez dakigu, ahizpak soilik agertzen dira |
| 29. La ovejita que vino a cenar. | | | | | | | | | | X<br>Ez da inolako familiarik agertzen. |
| 30. Laura va al médico. | | | X<br>Ama soilik agertzen da. | | | | | | | |

**B Corpusa:**

| FAMILIA MOTAK | Nuklearra | Homo parentala | Guraso bakarra | Familia berritua | Familia adoptiboa | Seme-alabik gabekoa | Aiton-amonak | Guraso banandua k | Familia komunala | Beste |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Liburuak** | | | | | | | | | | |
| 1. Ametsek bi ama ditu. | | X | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2. Mila bi etxetan bizi da. | | | | | | | | X | | |
